

OLERTI-EGUNA (1980)

Erria sor-azi bear da. — Ogiarekin bakarrik ez gara bizi, ezta politikaz bakar-bakarrik ere. Amar-amabost urteotan euskal erria obeagotze lanean ez dugu lan geiegirik egin; ogi-irabazteari ta geure gauzak aintzatzeari ez diogu jaramon aundirik ezarri. Politikari, ordea, sukartsu egin diogu. Biok elkar uztartuak obeki lioakez, nonbait.

Orrezaz gaiñera gizonak, euskaldunak bereziki, beste zerbait bear du. Bertsoa, poesia bear du euskaldunak, bere lur-arte zoragarriak eskaintzen diona baiño geiago bear ere. Zergatik diostazu? Eta zergatik ez?, diotzut nik. Jainkoa saiets utzu gabe bada ere, gizona gailendu bear omen da gaur-egun. Ederki! Baiña gizasemea ez duzu azala soilki, ba-du espirituzko arnasa ere, eta onek, jakiña, bere jatekoa bear. Euskaldunaren espiritua, gaur beintzat, lur-jorik daukagu, sarri entzun eta irakurri dugunez.

Naimen leialtsukoak gaur, ez gutxi, lur-joari eskua luzatu ta euskal espiritua, gogoa sustatu nairik lan dagie. Gisa geiago ez aipatzeko, or talde bi beinik-bein, ots, langilleak ogia eskuratuz eta politikuak ortan ari dira eusko lurra obeagotu ta euskal jendea nolabait kulturatzen. Lan txalogarria talde biona.

Ori ta guzti ere, errialde guztietan aitor oi duguna, auxe da: poetak, ots poetak dirala nun-naiko erria zuzpeltu ta bizkor-azi dutenak. Begira: erro-marrak berak otsegille bat eramaten zuten aurretik gudarozteak sustatzeko.

Guk, berriz, bertsolariak... Eta olerkariak... Ez ote?

Olerti-eguna. — Aurtengo OLERTI EGUNA Larrean. —karmeldarren ko-
mentuan— ospatuko da, J.L., azaroaren 23'an Kristo Errege egunean .

Goizeko 11,30'etan meza nagusia itzaldi ta guzti; ondoren 12,30'etan,
betiko aretoan, sariak banatzea, olerki sarituak irakurtzea, poesiari buruzko
alkar-izketa jakingarria, ta abar. Bazkal-bitartean itzaldi batzuk. Olerkari bat
omendu ere egingo da, beste urteetan bezela.

Lau sailletan bereziko da olerki-sariketa: I. Lirika saila, nai den luzera
ta tankerakoa, jatorra izan ezker. II. Poema bat; euskal bizitzari dagokiona
ba'litz, obe. III. Alegi-xorta. IV. Amar-amabi lantxo ezberdiñak, bertsolari
maillan egokituak.

Urrillaren azkenerako bialdu bear dira lanak. Epai-maiko igaz saria jaso
zutenak egingo dizkigute. Zuzenbide ontara biali lanak: Aita Onaindia, La-
rrea-Amorebieta (Bizkaia).

«OLERTI» aldizkaria. — Irarkolan daude lanak, eta Olerti-Egunerako es-
ku artean izango duzue. Aurten asita, urtean bi ale izango dira, bakoitzak
150 bat orialde ditularik. Liburutegietan salduko da, baiña arpidedunai mer-
keago egingo zaio. Arpidetu zaitez.

Aita Onaindia

BURNI JORAKO, SUTEGIAN,
BAI ERABILTZE LUZEAN,
BAI AZKAR-AZKARREKOAN...
(Estampados-Forjados delakoan)

REMIGIO ETXEBERRIA

Txonta, 12 — EIBAR